BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, IRUNGO 3.1.01 SAN MIGUEL-ANAKA EREMUKO URBANIZAZIO-OBRETARAKO OBRA-ZUZENDARITZA, OBRA-EXEKUZIOKO ZUZENDARITZA, INGURUMEN-ZUZENDARITZA ETA SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN JARRAIPENA ETA KOORDINAZIOA GAUZATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO

1.- LAN-ARLOAK ETA FUNTZIOAK

Kontratuaren xedea da Irungo 3.1.01 San Miguel-Anaka eremuko urbanizazio-obretarako obra-zuzendaritza, obra-exekuzioko zuzendaritza, ingurumen-zuzendaritza eta segurtasunaren eta osasunaren jarraipena eta koordinazioa gauzatzeko zerbitzuak kontratatzea. Aipatutako lanak egiteko gutxieneko baldintzak ezartzen ditu plegu honek.

Kontratazioaren xedea bat dator IRUNVIren helburu eta xedeekin, 3.1.01 San Miguel-Anaka eremuan hirigintza-kudeaketa eta urbanizazioa lankidetza-sistemaren bidez gauzatzeko Irungo Udalak Irungo Etxebizitzaren Sozietate Publikoari 2011ko urtarrilaren 14an egindako gomendioa kontuan hartuta.

2021eko urriaren 27an, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren EBAZPENA egin zen, zeinaren bidez baliozkotzen baita Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2021eko apirilaren 7ko Ebazpena. Apirilaren 7ko ebazpen horren bidez, inbentarioan jasotako MENDELU, CONATEC, VINICAP eta SANCHESKI eremuetako lurzoruaren kalitatea deklaratu zen, baita IPARRALDEKO BETELANA eta EKIALDEKO BETELANA izeneko eremuetakoena ere, Irungo udalerrian (Gipuzkoa) dagoen SAN MIGUEL ANAKAko HAPBaren 3.1.01 jarduketa-eremuan, eta Sociedad Pública de Vivienda de Irun / Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SAUri baimena eman zitzaion leku horretan eraikuntza-arrazoiengatik materialak hondeatzeko".

2022ko martxoaren 7an, Irungo Udaleko Alkatetzaren 188 zenbakiko Ebazpenaren bidez, behin betiko onetsi zen 3.1.01 San Miguel-Anaka eremua urbanizatzeko proiektua.HYPERLINK "https://www.irun.org/es/obras/1414-proyecto-de-urbanizacion-del-ambito-3-1-01-san-miguel-anaka?idob=354" \t "_blank" \o "Se abrirá en ventana nueva"

2023ko martxoaren 13an, Irungo Udaleko Alkatetzaren 359 zenbakiko ebazpenaren bidez, hasiera batean onetsi zen 3.1.01 San Miguel-Anaka eremuko birpartzelazio-proiektua.

Lizitazio honen xede den kontratua zuzenean lotuta dago urbanizazio-obren kontratuari. Kontratu hori, bestalde, Irungo San Miguel-Anaka 3.1.01 eremuko birpartzelazio-proiektua behin betiko onesten denean lizitatuko da.

Urbanizazio-obrak hasi aurretik egin behar dira laginketa, urbanizazio-faseetan hondeatu beharreko lurren laborategiko analisia, kudeaketa-kostua optimizatzeko alternatiben azterketa eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako hondeaketa-planaren fasekako txosten osagarriak, eta txosten horiek Eusko Jaurlaritzak baliozkotu behar ditu hondeatze-lanak hasi aurretik. Horregatik, beharrezkoa da Obra Zuzendaritza eta Ingurumen Zuzendaritza kontratatzea.

Alde horretatik, obrako obra-zuzendaritza, exekuzio-zuzendaritza, ingurumen-zuzendaritza eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa eta kalitate-kontrola osatzeko, obra-

zuzendariaren, exekuzio-zuzendariaren, ingurumen-zuzendaritzaren eta segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen berezko lanak egiteko behar diren langileak hartuko dira, administrazio-klausulen pleguan adierazitakoari jarraikiz.

Obra-zuzendaritzak (obra-zuzendaria), exekuzio-zuzendaritzak (exekuzio-zuzendaria), ingurumen-zuzendaritzak eta segurtasun- eta osasun-koordinazioak (segurtasun- eta osasun-koordinatzailea) konpromisoa hartzen dute ahalmen horiek gauzatzeko, betiere gai honetan indarrean dauden lege- eta/edo araudi-xedapenetan ezarritako betebeharrak puntualki betez. Era berean, plegu honetan eta sinatuta eta kontratuari erantsita doan Administrazio Klausulen pleguan jasotakoak ere bete beharko dituzte, eta baita adjudikaziodunek beraiek beren proposamenetan konprometitutakoak ere, eta bereziki kontuan izango dute beren funtzioak betetzeko indarrean dagoen araudia.

2.- OBRAKO ZUZENDARITZA FAKULTATIBOARENTZAKO ARAUAK

Garatu beharreko lan-arloak garatzeko. baliabide tekniko eta giza baliabide egokiak esleituko ditu.

Honako hauek osatuko dute obrako zuzendaritza fakultatiboa: obrako zuzendariak, obra gauzatzeko zuzendariak, ingurumen-zuzendariak eta segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak.

IRUNVIrekin koordinazio ezin hobea izateko, IRUNVIrekin harremanetan egongo da etengabe, egoki iritzitako oharrak eginez, egin dakizkiokeen kontsulta guztiei erantzunez edo bere ekimenez kontsultatuz. Era berean, Udaleko Zerbitzu Teknikoekin ere harremanetan egongo da etengabe, eta behar diren adina bilera egingo dira lanen garapenari eta martxari buruz.

Zuzendaritza fakultatiboak gutxienez 15 egunean behin bildu beharko du, eta koordinazio-bilera guztietako akta egin beharko du, eta arduradun guztiek sinatu ondoren, akta horren kopia bat IRUNVIri bidali beharko dio gehienez ere 5 eguneko epean, bilera egiten denetik.

Aurreikusi gabeko gorabeherarik gertatuz gero (obrak aldatzea, gelditzea, kontratua ez betetzea...) exekuzio-prozesuan, eta horregatik IRUNVIk esku hartu behar badu, berehala emango zaio horren berri, eta, bitartean, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira gerta daitezkeen kalteak eragozteko edo ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Hori guztia, Administrazio Publikoen Kontratuei buruz indarrean dagoen legediak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Kasu horretan, obretako Zuzendaritza Fakultatiboak berariazko txosten esklusiboa egin beharko du, eta aurkeztu egin beharko du, ziurtagiriaz gain.

Zuzendaritza fakultatiboak ezingo du agindu, eraikuntza-prozesuak irauten duen bitartean, proiektuaren aldaketarik, berak edo obrak egiteko kontratista adjudikaziodunak proposatuta, nahiz eta kontratatutako prezioa igotzea ez ekarri horrek (materialak, instalazioen trazadura, etab.). Horretarako, IRUNVIk horren berri izan behar du, eta onetsi egin behar du, eta inolaz ere ezingo da egin, Administrazio Publikoen Kontratuen legeriak horretarako ezartzen dituen izapideak egin gabe.

2.1.- OBRETAKO ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA

2.1.1.- OBRA ZUZENDARITZA ETA OBRA EXEKUZIOKO ZUZENDARITZA

Honako funtzio hauek bete beharko ditu:

- **Plangintza eta metodologia orokorra prestatzea, aurretikoa, laguntza teknikoko lanak egiteko moduaz.**

- **IRUNVIri laguntzea** urbanizazio-obren lizitaziorako **baldintza-pleguak idazten.**

- Lan-arlo guztien eta dagokion giza taldearen **koordinazioa eta jarraipena gauzatzea.**

- **Obra-proiektuak zehatz aztertzea eta berrikustea,** bai eta eskura dauden datu eta aurrekari guztiak eta kontratista adjudikaziodunaren eskaintza ere.

- Kontratistak adjudikazioaren ondoren aurkeztu beharreko **Lan Plana berrikustea.**

- **Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa** arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzen duen abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretuan ezarritako arauak betetzea. Zuzendaritza fakultatiboak egiaztatu egingo du obran dagoela azpikontratazio-liburua, eta arauetan aurreikusitako oharrak egingo ditu.

- **Harremanetarako behar den dokumentazioa prestatzea:** erakunde ofizialen eta obrek ukitutako partikularren **pasatze-baimenerako eskaerak eta beharrezko baimenak** prestatzea eta obrekin zerikusia duten zerbitzuek eta zortasunak planteatzen dituzten arazoak konpontzea.

- **Zuinketa egiaztatzeko egintzara** joatea. Horretarako, obra sustatzen duen zerbitzuak dei egingo dio. Zuinketa egiaztatu ondoren, obra-zuzendaritzaren iritziz eta kontratistaren erresalburik gabe, lurrak erabilgarri daudela eta proiektua bideragarria dela frogatzen denean, obrak hasteko baimena emango du obra-zuzendaritza horrek, eta hori esplizituki jasoko da egiten den aktan. Eta kontratista baimenaren jakinaren gainean geratuko da, akta sinatutakoan, eta, akta sinatzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen obrak egikaritzeko epea. Obra exekutatzeko zuzendaritzak ere sinatu behar du akta hori.

- Zuinketa-akta, obraren azken ziurtagiria, ziurtagiri partzialak eta azken likidazioa **sinatzea,** ikus-onetsita, hori nahitaezkoa denean.

- Obran gertatzen diren **gorabeherak konpontzea,** eta Agindu eta Laguntza Liburuan jasotzea proiektua behar bezala interpretatzeko jarraibide zehatzak, grafikoak nahiz idatziak.

- **Gainbegiratzea eta kontrolatzea,** obra baldintza-pleguen, jatorrizko proiektuaren eta behar bezala baimendutako aldaketen arabera egin dadin.

- Enpresa esleipendunak egindako lan-planaren **kontrola eta jarraipena**, eta Irungo Udalari jakinaraztea obra-epeei eta prezio kontrajarriei edo aurkeztutako ziurtagirietan izandako neurketa-aldaketei dagokienez gertatzen diren desorekak.

- Obretan dauden kontratisten eta azpikontratisten **jarraipena eta identifikazioa**, hilero.

- Zehazki, lurpeko elementu mekanikoak jartzeko hobien zimendu eta egituren egokitzapena eta zuinketa **egiaztatzea**. Bestalde, harri-lubeten eta mendi-mazelako ezpondaren oinarriaren ondoko lanen egokitzapena gainbegiratzea, horien egonkortasuna bermatuta gera dadin.

- **Exekuzio planning dinamiko bat prestatzea,** diagrama partzialak banakatuz, eta hilero zuzentzea, desbideratzeak (kausak) eta haien eragin-maila adieraziz, eta, aldi berean, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak proposatuz.

- **Obraren exekuzio materiala zuzentzea**. Horretarako, egiaztatu egin beharko da zuinketak, materialak, eta eraikuntzako eta instalazioetako elementuak behar bezala egikaritzen eta antolatzen direla, Urbanizazio Proiektuarekin bat etorriz, obrako argibideak emanez (krokisak, xehetasun-planoak, etab.).

- Adjudikaziodunak uneoro **exijitu beharko du** exekuzio-sistemari dagokionez **baldintza-pleguetan agindutakoa** bete dadin.

- Sor daitezkeen eta baldintza-pleguek Obra Zuzendaritzaren esku uzten dituzten **alderdi teknikoak zehaztea,** planoak interpretatzeari, materialen baldintzei eta obra-unitateak exekutatzeari dagokienez, betiere kontratuaren baldintzak aldatu gabe.

- **IRUNVIrekin adostea ohiko obra-aldaketak**, epea eta aurrekontua aldatzen ez dituztenak, obra-plano berriak eguneratuz edo prestatuz.

- Urgentzia edo larritasun kasuetan, **egiten ari diren eragiketa edo lan jakin batzuk zuzentzea,** horretarako behar diren baliabideak kontratistaren eskutik lortuz.

- **Kontratistaren komunikazioak jasotzea eta erantzutea.**

- **Proposamenak aztertzea** obran sortzen diren arazoei buruz, baldin eta kontratua behar bezala betetzea eragozten edo hura aldatzea gomendatzen badute.

- Obra Zuzendaritzak **proiektatutako obrak aldatzea,** beharrezkoa dela adierazten duenean, eta aktan jasoko du, kontratazio-organoak kontratua eteteko erabakia edo ebazpena har dezan. Hala ere, obrak hastea eragotzi zuten arrazoiak konpontzen badira, obrak hasteko baimena emateko erabakia eman ahal izango da, eta kontratistari jakinarazi, eta exekuzio-epea jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da. Obra Zuzendaritzak aldaketaren kostuaren zenbatespena egin behar du hamabost egunetan, kontratua eteten denetik zenbatzen hasita.

- **Bilera guztietako Aktak** egitea.

- Adjudikaziodunak hilero egingo ditu **obra kontrolatzeko beharrezko eragiketa guztiak**, baita dagokion balorazioa ere, atal hauek kontuan hartuta:

a) Obra ezkutuen neurketak (zimenduak, etab.) Estali aurretik, baita planoak ere.

b) Exekutatutako obraren hileroko neurketak, unitateen eta exekutatutako obraren arabera.

c) Exekuzioaren zaintza.

d) Exekutatutako obraren balorazioak, proiektuaren prezioen edo baimendutako balizko eraberritzeen arabera.

- Exekutatutako obra-unitateen ziurtagiri partzialak eta azken likidazioa egitea. Horretarako, neurketak, zerrenda baloratuak, prezio-berrikuspenak eta abar banakatuko ditu, nahitaezkoa denean ikus-onetsita. **Obraren hileroko ziurtagiria** idaztea hurrengo hilaren 10a baino lehen.

- **Obra-kontratistari balorazioak helaraztea,** alegazioak egin ditzan, hala nahi izanez gero.

- Hileko lehen hamar egunetan zehar, **obraren martxari buruzko hileroko txosten xehatua** idaztea (neurketak, epeak eta plangintza, gorabeherak, aldaketak, lanen kalitatea, argazki-txostena, bileretako aktak, obren aurrekontua partiden arabera banakatuta eta gauzatutakoaren ehunekoa, etab.), bai eta onartutako Lan Planarekiko eta ezarritako kalitate-mailarekiko egokitasuna ere, eta saiakuntzak, txostenak, jarduerak, etab.), IRUNVIri aukera emateko etengabe eta egunean lanak nola doazen jakin dezan. Geldialdia gertatzen bada edo lan-erritmoa asko jaisten bada, adjudikaziodunak txostenean adieraziko du zergatik eta zer erantzukizun duen kontratistak.

- Obren ondorioz hirugarrenak kaltetuz gero edo beste gertakizun garrantzitsuren gertatzen bada, adjudikaziodunak txostena egingo du kontratistaren motibazioari eta erantzukizunari buruz.

- **Zehapenak ezartzeko** proposamenak egitea.

- **Kontrolatzea eta obran jasotzea,** eraikuntza-produktuak (lehengaiak, produktu landuak, etab.), funtzionamendu-probak, entseguak eta kontrolak egiteko aginduz onetsitako Kalitate Kontrolerako Programaren arabera.

- Material-zerbitzuari, sistemari edo instalazioei buruz eskatutako entsegu edo proben **emaitzak jaso eta interpretatzea eta Kalitate Kontrolaren Liburua betetzea.**

- **Kalitate-kontroleko laborategiekin eta kontratistarekin koordinatzea,** kalitate-kontroleko planean jasotako entseguak egiteko, bai eta zuzendaritza fakultatiboak obrak egitean aintzat hartzen dituen saiakuntzak egiteko ere.

- **Erabili beharreko makineria eta baliabide osagarriak berrikustea:** adjudikaziodunak dokumentazioa eskatu ahal izango du, teknikoa nahiz administratiboa , kasu bakoitzean indarrean dagoen araudira egokitzen dela egiaztatzeko.

- **Hornitzaileak gainbegiratu eta kontrolatzea:** adjudikaziodunak dokumentazioa eskatu ahal izango du, teknikoa nahiz administratiboa, proiektuaren aginduetara egokitzen dela egiaztatzeko.

- Gerta daitezkeen **gorabehera tekniko edo ekonomikoak** aurreikusi eta haien konponbideari buruzko txostena egitea.

- **Ustekabeen** irismena zehaztu eta baloratzea eta txosten bat aurkeztea egon daitezkeen irtenbideei buruz.

- IRUNVIk eskatuta edo haren adostasunarekin, ustekabeko arrazoiengatik **proiektuan balizko aldaketa txikiak** prestatzea, betiere aldaketa horiek indarrean dauden xedapen arauemaileetara egokitzen badira, eta aldaketa horretarako behar den dokumentazioa biltzea.

- **Prezio kontrajarrien** proposamena egitea, kontratistarekin eztabaidatzeko.

- Hiri-azpiegituren **funtzionamendu-probak egiaztatzea:** argiztapena, iturgintza, saneamendua eta beste instalazio berezi batzuk.

- Bere eskumenen esparruan, beharrezkoa den dokumentazioa betetzea, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua eta otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua (**Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena**) aplikatzeko.

- **Exekutatutako obraren dokumentazioa prestatu eta izenpetzea** (Obra Amaierako Proiektua, Obra Amaierako Ziurtagiria, Kalitate Kontrolaren Ziurtagiria, Obra Harreraren Akta, Instalazioen Dokumentazioa, etab.), ikus-onetsita hala behar denean, Administrazioari emateko, dagokion Udal Harrera eskuratze aldera.

- **Obraren harrera-egintzara joatea,** kontratazio-organoak deituta. Obrak hartzeko moduan ez badaude, hala jasoko da aktan, eta antzemandako akatsak eta horiek konpontzeko jarraibide zehatzak adieraziko ditu Obra Zuzendaritzak, eta epe bat ezarriko du horretarako. Epe hori luzatu ahal izango da, eta bete ezean, kontratua suntsiarazi ahal izango da.

- **Txostenak egitea berme-aldian** obran egindako esku-hartzeei buruz, baita berme-epea amaitu ondoren obrek duten egoerari buruz ere, eta, hala badagokio, obra horien proposamena eta likidazioa egitea.

- Obraren kalitate-kontrolaren **jarraipena**.

- Obraren aldaketen edo beharren ondorioz beharrezkoa izan daitekeen edozein proiektu aldatu **idaztea**.

2.1.2.- INGURUMEN ZUZENDARITZA.

Honako funtzio hauek bete beharko ditu:

- Zabortegian materialak kudeatzeko **ingurumen-zuzendaritza eta zuzendaritza teknikoa izatea.**

- **IRUNVIri laguntzea** urbanizazio-obren lizitaziorako baldintza-pleguak idazten.

- **Aholkularitza espezializatua ematea** lurzoru kutsatuei buruz.

- **Ingurumen Zuzendaritzak egin beharreko lanaren irismena zehaztea:** Ingurumen Zuzendaritzak egin beharreko lana ahalik eta informazio gehien biltzea da, hondeatu beharreko lurren kudeaketaren kostua optimizatzeko. Horretarako, ahalik eta analitikarik zabalena egin behar da. Kontuan hartuta aurkeztutako hondeaketa-planari ingurumen-organoak zer erantzun dion, "*Ikertutako gainazalen eta erabilgarri dauden laginen kopuruaren arabera aurkeztutako zenbatespena lehen hurbilketatzat baino ezin da hartu, eta, beraz, ezin da baztertu lagin osagarriak lortu behar izatea; lagin horien analisien emaitzak ingurumen-organoari jakinarazi beharko zaizkio*", une honetan ezin da zehaztu lagin gehiago hartu beharko diren ala ez; beraz, egin beharreko lanak izan lezakeen irismenaren koadro orientatzaile bat aurkezten da. *(VI. eranskina, AKPPko Ingurumen Zuzendaritzaren banakapena).*

- **Hondakinen karakterizazioa egitea, haien konposizioaren, presentziaren, portaeraren eta efektu toxikologikoen arabera,** balorizatzeko/ezabatzeko (hondakinak hondakindegian eta tratatzeko/balorizatzeko instalazioetan onartzea) eta hondakinak sailkatzeko (arriskutsuak/ez-arriskutsuak).

- Lurzoruaren kalitatea **kontrolatzeko eta jarraipena egiteko neurriak diseinatzea eta gauzatzea.**

- Hondeatu beharreko lurren laborategiko analisien **laginketa egitea.**

- Lurren kudeaketaren kostua optimizatzeko **aukerak aztertzea.**

- Hondeaketa Planaren **txosten osagarriak prestatzea,** Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoan aurkezteko.

- Hondeaketa selektiboaren eta kudeaketa-helmugen **jarraipena eta ikuskapena egitea.**

- Hondarren **kalitate-laginketa egitea.**

- **Etorkizuneko erabilera baliozkotzeko txostenak egitea.**

- **Beharrezkoak diren txosten guztiak egitea** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren urbanizazio-obrak eta baimenak jasotzeko.

- Lurzoruak hondeatzeko lanak **gainbegiratzea.**

- Lur azpiko uren kalitatearen **jarraipena eta analitika egitea.**

- Lurpeko ura kudeatzen **laguntzea,** hondeatzerakoan ponpatu behar bada.

- **Lurzoru aldatuen ezaugarriak zehaztea eta haiek kudeatzeko bideak proposatzea,** obretan kutsadura-zantzuak ustekabean agertzen direnean. Dagozkion dokumentuak prestatzea.

- **Arriskuen analisi kuantitatiboa egitea,** beharrezkoa izanez gero.

- Eusko Jaurlaritzarekin egiten diren **bileretara joatea.**

- **Espedienteak izapidetzen laguntzea** ingurumenaren eta antzekoen bidez.

2.1.3.- SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOA.

Adjudikaziodunak IRUNVIri kontratistak Segurtasun eta Osasun arloan egindako lanaren berri emango dio, eta artxibo bat ezarriko du, egiten diren txosten eta jarduketak jasotzeko.

IRUNVIrekin koordinazio ezin hobea izateko, IRUNVIrekin harremanetan egongo da etengabe, egoki iritzitako oharrak eginez, egiten dizkieten kontsulta guztiei erantzunez edo bere ekimenez kontsultatuz.

Nolanahi ere, adjudikaziodunak lanen martxa eta kalitateari buruzko txostenak bidali beharko ditu hilero.

Honako funtzio hauek bete beharko ditu:

- Obren kontratistak egindako **Segurtasun eta Osasun Plana onestea,** eta, hala badagokio, baita planean egindako aldaketak ere.

- **Lantokia ireki dela egiaztatzea**.

- Behar diren neurriak hartzea, soilik **baimendutako pertsonek** izan dezaten obrara sartzeko aukera.

- Prebentzio- eta segurtasun-printzipio orokorren aplikazioa **koordinatzea.**

- Lan-metodoak behar bezala aplikatzen direla kontrolatzeko ekintzak eta funtzioak **koordinatzea.**

- **Erabaki teknikoak eta antolaketakoak hartzea,** aldi berean edo ondoz ondo egin beharreko lanak edo lan-faseak planifikatzeko.

- Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzen duen abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretuan **ezarritako arauak betetzea. Zuzendaritza fakultatiboak egiaztatu egingo du** obran dagoela azpikontratazio-liburua, eta arauetan aurreikusitako oharrak egingo ditu.

- **Obrako jarduerak koordinatzea,** kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek eta langile autonomoek modu koherentean eta arduratsuan aplika ditzaten Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15. artikuluan jasotako **prebentzio-ekintzaren printzipioak** obra egiten den bitartean, eta, bereziki, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretu honen 10. artikuluan aipatzen diren zeregin eta jardueretan.

- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeko 24. artikuluan aurreikusitako **enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea.**

- Segurtasun eta Osasun Gorabeheren Liburuan dagozkion oharrak egitea.

Nolanahi ere, adjudikaziodunak, bere eskumenen barruan, urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretua bete eta betearazi beharko du (errege-dekretu horrek eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen ditu), eta baita Ondare eta Kontratazio

Zuzendaritzaren uztailaren 29ko 3/2020 Zirkularrak obren zuzendaritza fakultatiboari buruz ezarritakoa ere.

2. 2.- TALDEA ETA JARDUKETA SISTEMAK.

Plegu honetan arautzen dira Obra Zuzendaritzak, Obra Exekuzioko Zuzendaritzak, Ingurumen Zuzendaritzak, Segurtasun eta Osasun Koordinazioak eta Kalitate Kontrolak osatzen duten Zuzendaritza Fakultatiboak eman beharreko zerbitzuak.

Zuzendaritza Fakultatiboa urbanizazio-obrak zuzentzen, kontrolatzen eta zaintzen esperientzia handia duen talde tekniko baten prestakuntzaren bidez gauzatzea aurreikusten da.

Zuzendaritza Fakultatiboko taldeak nabarmen jardungo du obran bertan, aurreko ataletan deskribatutako funtzio guztiak garatuz, koordinatuz eta gainbegiratuz.

Obra Zuzendaritzaren, Exekuzio Zuzendaritzaren, Ingurumen Zuzendaritzaren eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren kargurako teknikari kualifikatuek osatutako Zuzendaritza Fakultatiboa izango da gutxieneko antolaketa, eraikuntzaren kontrol kuantitatiboa eta kualitatiboa eta urbanizatutakoaren kalitatea bermatzen duten giza baliabideak eta baliabide teknikoak ere barne.

Alde horretatik, obraren obra-zuzendaritza, exekuzio-zuzendaritza, ingurumen-zuzendaritza eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa eta kalitate-kontrola osatzeko, obra-zuzendariaren, exekuzio-zuzendariaren, ingurumen-zuzendaritzaren eta segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen berezko lanak egiteko behar diren langileak hartuko dira, administrazio-klausulen pleguan adierazitakoari jarraikiz.

Obren zuzendaritza fakultatiboa osatzen duten teknikarien **dedikazio-maila** obraren plangintzaren eta horietako bakoitzaren eskumenen araberakoa izango da, eta obra behar bezala kontrolatu eta jarraitzeko beharrezkoak diren bisitak egin beharko dira. Halaber, teknikari bakoitzak astean egun batean bisita bat egin beharko du, gutxienez. Hala ere, gutxieneko bisita-kopuru hori handiagoa izan daiteke, lehiaketaren adjudikaziodunak egindako eskaintzaren arabera.

Mota guztietako gastuak (bidaiak, dietak, obra-azpiegiturak, komunikazioak, ura, argia, etab.) lehiakide adjudikaziodunaren kontura izango dira, betiere langileak edo taldea obraren eremuan edo inguruan lekualdatu eta egotearen ondorioz sortzen direnean.

2.3.- ADJUDIKAZIODUNAREN ETA IRUNVIREN ARTEKO HARREMANAK.

Jabeak obraren zenbait alderdiri buruzko txostena eskatuko du, lanen martxak hala eskatzen duela uste duen guztietan.

IRUNVIko ordezkari bat ez bada etorri obrako bisita teknikoetara, adjudikaziodunak posta elektronikoz emango dio kontratistak egindako lanaren berri, eta hartutako erabakien laburpen bat ere bai, bere funtzioetan zehaztutako txostenez aparte.

Adjudikaziodunak artxibo bat ezarriko du, jabearekin ados jarrita. Artxibo horretan jasoko dira egiten diren saiakuntza, txosten eta jarduketa guztien emaitzak.

Jabetzarekin koordinazio ezin hobea izateko, harekin harremanetan egongo da etengabe, egoki iritzitako oharrak eginez, egin dakizkiokeen kontsulta guztiei erantzunez edo bere ekimenez kontsultatuz.

Jabeak eskatuta edo adjudikaziodunak hala proposatuta, lanen garapenari eta martxari buruzko bilerak egingo dira.

Jabetzak ikusten badu adjudikaziodunaren lantaldea osatzen duten pertsonetako edozein ez dela egokia, dela gaitasun falta agerian geratzen delako, dela taldearen funtzionamendura egokitzen ez delako, pertsona egoki batek ordezka dezala eskatuko du, aurrez idatziz jakinarazita. Adjudikaziodunak gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko du ordezkapen hori. Adjudikaziodunak langileak ordeztu nahi baditu, edo funtzioak edo kopurua aldatu, Jabetzaren baimena beharko du aldez aurretik.

2.4.- LAN BALDINTZAK.

Lan-ordutegiak:

- Adjudikaziodunaren langileek obrako kontratistaren lan-ordutegi eta -egutegi bera izango dute.

Oporrak:

- Oporraldian, ordezkapenetarako teknikariren bat edukitzea eskatuko zaio adjudikaziodunari, kontratatutako Obra Zuzendaritzaren prestazioa bermaturik gera dadin.

Obrako lokomozioa eta lekualdaketa:

- Obran ari diren teknikarien joan-etorria ziurtatu behar du adjudikaziodunak. Horretarako, behar adina ibilgailu eta ibilgailu-mota egokiak jarri behar ditu eskura, obran bertan dagoen giza taldeak ahalik eta errendimendu onena izan dezan. Hori ez da bereiz ordainduko.

Instalazio- eta funtzionamendu-gastuak. Adjudikaziodunaren kontura izango dira honako gastu hauek:

- Funtzionamendu orokorrekoak

- Dokumentuak dagokion elkargo profesionalean ikus-onestekoak, ikus-onetsi behar badira, bai obra gauzatu bitartean, bai bukatzean.

- Txosten guztietarako mekanografia eta, hala badagokio, planoen delineazioa eta krokis txikiak, txosten horiei eransteko beharrezkoak.

- Lanetan erabilitako materiala oro har.

- Bulegoko material txikiak.

- Argazkietarako, dokumentazioa artxibatzeko eta abarretarako materiala.

- Eta plegu honetan zehaztutako funtzioak betetzeko beharrezkoak diren gainerako gastuak.